

## COVID-19aren INPAKTUA NAFARROAKO KULTURAN:

JARRAIPEN-ADIERAZLEAK, 2020 eta 2021eko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoak

Nafarroako Foru Komunitateko Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurkeztu ditu Covid-19ak Nafarroako kulturaren sektorean izan duen eraginaren adierazle nagusiak. Adierazle horiek 2020an eta 2021ean zehar osasun-krisiak Kultur sektorean izan duen eragina erakusten dute, baita 2019an Covid aurreko egoerarekin izan duen aldaketa ere.

Joerak kontsultatu

Informazio iturriak

EMPRESA EHUNA

info +

### Kultura enpresak

2021eko urtarrilean, aurreko urtean baino -% 5,2 kultura-enpresa gutxiago zeuden. Eta 2019an baino % 1,8 gehiago.



### Enpresa enplegatzaileak eta autonomoak

Enpresa enplegatzaileen kopuruak behera egin du eta langile autonomoenak gora. 2021eko irailean, 2020ko aldi berean baino % 9,5 enpresa gutxiago daude Gizarte Segurantzari altan, eta % 4,6 langile autonomo gehiago.

> Enpresa enplegatzaileak



> Pertsona autonomoak




ENPLUGA

info +


### Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonak

2021eko irailean, % 5,1 pertsona gehiago daude alta emanda Gizarte Segurantzari kulturaren sektorean, 2020ko aldi berarekin alderatuta.



### Kontratuak

2020ko irailetik 2021eko iraileira bitartean, erregistratutako kontratuen kopurua mantendu egin da, eta oso gutxi igo da.




FAKTURAZIOA

info +


### Enpresen fakturazioa

2021eko hirugarren hiruhilekoan, kultura-enpresen fakturazioak ia bikoiztu egin du 2020ko aldi berean lortutako kopurua. Hala ere, urrun dago oraindik 2019ko aldi bereko 3.087.076 €-tik, osasun-krisiaren aurreko garaitik, alegia.



### Enplegu-erregulazioak espedientearekin dauden besteren konturako langileak\*

2021eko bigarren hiruhilekoan aldi baterako lan-erregulazioen eraginpean zeuden pertsona guztiak egoera hori atzean utzi dute 2021eko hirugarren hiruhilekoan.




\*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikusizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboaren, museoaren eta beste kultura-jarduerak batzuk. Horren arrazoiak da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informazioari eskaintzen.

INFORMAZIOA +




Enpresa enplegataileak eta autonomoak

Enpresa enplegataileak - Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako Afiliazioa. Nastat.

> Pertsona autonomoak - Bilakaera




Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak, Autonomoen Erregimena. Nastat

INFORMAZIOA +



**ENPLEGUA**

Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak – Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak. Nastat


Oharrak: Erregimen Orokorreko eta Autonomoen Erregimeneko afiliazioari buruzko informazio erantsia ematen da.

INFORMAZIOA +



ENPLEGUA

Kontratu kopurua – Bilakaera\*



■ 2020-2021 Hilabete arteko ald. ● 2019-2020-2021 Urte arteko ald.

Iturria: enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Errealitate Sozialaren Behatokia

\*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoa eta grabatutako euskarren erreproduzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazioko eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jardura batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jardura batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.

INFORMAZIOA +




ENPLEGUA


2021eko hirugarren hiruilekoko datuen eta 2020ko aldi beraren arteko alderaketak berretsi egiten du aurreko hiruhilekoan Erregimen Orokorrean afiliazioak izandako susperraldia. Bestalde, datuen urteko aldakuntzak erakusten du langile autonomoen afiliazioak goranzko joerarekin jarraitzen duela, nahiz eta balioak zertxobait leundu diren aurreko hiruhilekoan erregistratutakoekin alderatuta.

Kultur sektorean Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonak, erregimen motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Erregimen orokorra




Autonomo erregimena




Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonak, sexuaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Emakumeak




Gizonak



Aurreko txostenean ikusitako afiliazio-zifren goranzko joerari eutsi zaio. Sexuaren araberako analisiari erreparatuta, Gizarte Segurantzako altak neurri handiagoan igotzen dira emakumeen artean (+%6,0, 2021eko irailean, aurreko urteko aldi beraren aldean) gizonen artean baino (%4,6).

Pandemia hasi zenetik orain arte, arte eszenikoek izan dute baja gehien Gizarte Segurantzari; hala ere, 2021eko hirugarren hiruilekoko datuek, aurreko urteko aldi beraren aldean, joera-aldaketa erakusten dute, eta denboran zehar mantentzen den ala ez ikusi beharko da. Museoei eta bideo-joko/digitalei, joera positibotik datozenak, ekitaldiak eta erakusketa-azokak gehitu zaizkie; sektore horiek guztiek izan dute afiliazio-hazkunderik handiena 2020ko hiruhileko beraren aldean. Aitzitik, ikus-entzunezko industriak afiliazioak galtzen jarraitzen du.

Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonak, jardueraren arabera. 2020-2021 Bilakaera



Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistikak. Nastat

INFORMAZIOA +




ENPLEGUA


2021eko bigarren hiruhilekoan ikusitako hazkunde nabarmenaren ondoren, kultura-sektorean emakumeen eta gizonen kontratuak gora egiten jarraitzen dute hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean, nahiz eta hazkunde hori moteldu egin den aurreko hiruhilekoan erregistratutako urte arteko aldakuntzarekin alderatuta. Igoera hori portzentualki handiagoa da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, nahiz eta termino absolutuetan gizonen kontratu gehiago dituzten.

Kultura-sektorean erregistratutako kontratuak, sexuaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Emakumeak




Gizonak




Kopuru absolutuetan eta ehunekoetan, aldi baterako kontratu gehiago sinatzen dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan mugagabeak baino, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta aurreko hiruhilekoetan ikusitako joera positiboa berresten da.

Kultur sektorean erregistratutako kontratuak, kontratu motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera

Mugagabea




Aldizkako




Kopuru absolututan, lanaldi partzialeko kontratuak gehiago igo dira lanaldi osokoak baino 2021eko hirugarren hiruhilekoan, 2020ko aldi beraren aldean. Ehunekoei dagokienez, lanaldi partzialeko kontratuak dagokie kopuruen igoerarik handiena. Joera goranzkoa da kasu guztietan.

Kultur sektorean erregistratutako kontratuak, lanaldi motaren arabera. 2020-2021 Bilakaera


Osoa



Lanaldi partziala



Aldizkako kontratu finkoa




Iturria: Enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Errealitate Sozialaren Behatokia.

INFORMAZIOA +



**Sortutako BEZaren zerga-oinarria- Bilakaera**  
**FAKTURAZIOA**



Iturria: aitorzaileek sortutako BEZaren zerga-oinarriak EJZ epigrafeetan 301, 302, 303 taldeak. Nafarroako Foru Ogasuna.



## Covid-19ak Nafarroako kulturaren sektorean izandako inpaktuaren jarraipen-adierazleak osatzeko, honako iturri hauetatik lortu da informazioa:

### ENPRESA EHUNA

- » Kulturaren sektoreko enpresen kopurua Nafarroan. Nafarroako Enpresen Direktorioa 2020ko urtarrilaren 1ean. Nastat.

*Oharra: informazio hori urtero eguneratzen da erreferentziako urteko urtarrilaren 1ean, eta uztailean argitaratzen da. Beraz, 2021eko uztailean argitaratuko da 2021eko urtarrilaren 1eko datua.*

- » Nafarroako Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzari alta emanda dauden kotizazio-kontuen kopurua. 2019ko, 2020ko eta 2021eko irailera arteko hileko informazioa. Nastat.

*Oharra: informazio honek hileko azken egunean erregistratutako kotizazio-kontuei buruzko datuak ematen ditu.*

### FAKTURAZIOA

- » Aitortzaileek sortutako BEZaren zerga-oinarriak EJZ epigrafeetan 301, 302, 303 taldeak. 2019ko eta 2020ko hiruhilekoko informazioa eta 2021eko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoak (behin-behinekoa). Nafarroako Foru Ogasuna.

*Oharra: Nafarroako Foru Ogasunak emandako BEZaren datuek aukera ematen dute sortutako BEZaren oinarrien fakturaziora hurbiltzeko. Azterlan honetarako, kultura-jardueratzat hartu dira 3. Atalean (EJZ epigrafeen egiturako jarduerak artistikoak) sartutakoak, zehazki 301, 302 eta 303 taldeetako jarduerak (ikus xehetasun gehiago eranskinean).*

### ENPLEGUA

- » Nafarroako Kulturaren sektoreko langileen afiliazio-kopurua Gizarte Segurantzari. 2019ko, 2020ko eta 2021eko irailera arteko hileko informazioa. Nastat.

*Oharra: informazio honek hileko azken egunean erregistratutako afiliazioei (Erregimen Orokorra eta Autonomoak) buruzko datuak eskaintzen ditu.*

- » Enplegu-bulegoetan erregistratutako kontratazioak. Hilabete bakoitzeko informazio metatua, 2019, 2020 eta 2021eko irailera artekoa. Errealitate Sozialaren Behatokia.

*Oharra: kontratuei buruzko informazioa ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduerak batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.*

### ENPLEGUA ALDI BATERAKO ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

- » Lan-jarduna eteteko edo murrizteko administrazio-egoera duten demandak, bitartekaritza mugatua dutenak. 2020ko martxotik 2021eko irailera bitarteko hileko informazioa. Errealitate Sozialaren Behatokia.

*Oharra: ERTE egoeran dauden eskatzaileei buruzko informazioa ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduerak batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduerak batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.*





## KULTURAREN SEKTOREKO JARDUERAK

» Azterketa honen ondorioetarako, honako kultura-jarduera hauek hartu dira kontuan:

### Ekonomia Jardueraren Sailkapen Nazionala

Kodea CNAE	Izenburua CNAE
9106	Agiritegien jarduerak
9105	Liburutegien jarduerak
9102	Museoetako jarduerak
9103	Toki eta eraikin historikoen kudeaketa
9001	Arte eszenikoak
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak
900	Sormen, arte eta ekitaldi jarduerak
9004	Ekitaldi aretoen kudeaketa
9003	Sorkuntza artistikoa eta lietarioa
742	Argazkilaritzako jarduerak
7420	Argazkilaritzako jarduerak
59	Zinemako, bideo eta telebista saioretako jarduerak, soinu grabazioak eta musika edizioak
591	Zinemako, bideo eta telebista saioretako jarduerak
4763	Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
5912	Zinemako, bideo eta telebista saioretako produkzio ondoko jarduerak
5914	Zinema erakusteko jarduerak
5915	Zinema eta bideo produkzio jarduerak
5916	Telebista saioretako produkzio jarduerak
5917	Zinema eta bideoa banatzeko jarduerak
5918	Telebista saiok banatzeko jarduerak
7722	Bideo zinten eta diskoen alokairua
181	Arte grafikoak eta horiekin zerikusia duten Zerbitzuak
1811	Egunkariak inprimatzea
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk
1813	Aurreinprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak
1814	Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
4761	Liburuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
5811	Liburuen argitalpena
182	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
592	Soinua grabatzeko eta musika editatzeko jarduerak
1820	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
5920	Soinua grabatzeko eta musika editatzeko jarduerak
582	Informatikako programen argitalpena
5821	Bideojokoen argitalpena
5829	Informatikako beste programa batzuen argitalpena
6201	Informatikako programazioko jarduerak
6202	Informatikako aholkularitzako jarduera
6312	Web atariak
8230	Konbentzioen eta erakustazoken antolaketa



## KULTURAREN SEKTOREKO JARDUERAK

### 3. ataleko EGZ epigrafeak: Arte jarduerak

**01. multzoa.** Zinemarekin, antzerkiarekin eta zirkuarekin lotutako jarduerak.

- 011 TALDEA. ZINEMA ETA ANTZERKIKO ZUZENDARIAK.
- 012. TALDEA. ZUZENDARITZA-LAGUNTZAILEAK.
- 013 TALDEA. ZINEMA ETA ANTZERKIKO AKTOREAK.
- 014. TALDEA. ESTRA ESPEZIALIZATUAK, BIKOITZAK, KONPARTSAK ETA MEREZIMENDUZKOAK.
- 015. TALDEA. ZINEMA-, TELEBISTA- ETA BIDEO-KAMEREN OPERADOREAK.
- 016. TALDEA. UMORISTAK, KARIKATUAK, ESZENTRIKOAK, TXARLISTAK, ERREZITATZAILEAK, ILUSIONISTAK, ETAB.
- 017 TALDEA. AZALTZAILEAK ETA ERREJIDOREAK.
- 018 TALDEA. ZIRKUKO ARTISTAK.
- 019. TALDEA. ZINEMAREKIN, ANTZERKIAREKIN ETA ZIRKUAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.

**02. multzoa.** Dantzarekin lotutako jarduerak.

- 022 TALDEA. DANTZARIAK.
- 029. TALDEA. DANTZAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.

**03. multzoa.** Musikarekin lotutako jarduerak.

- 031 TALDEA. MUSIKA-MAISUAK ETA -ZUZENDARIAK.
- 032. TALDEA. INSTRUMENTUEN INTERPRETEAK.
- 033 TALDEA. ABESLARIAK.
- 039. TALDEA. MUSIKAREKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK, B.I.S.G.



JOERA nagusiak

## 1. joera

2021eko aurreko hiruhilekoetan langile autonomoen eta enpresa enplegatzailen kopuruetan ikusitako susperraldia urteko hirugarren hiruhilekoan mantendu da, pandemiari eusteko neurri bigunagoei eta herritarren artean txertaketaren hedapenari esker, kulturaren arloko kontsumoari eta jarduerari eusten lagundu baitute.

### Enpresa enplegatzailak 2021 iraila\* ■

Denbora-alderaketa		Zifra absolutuak. Kotizazio kontuak
2020ko irailarekin alderatuta	+% 7,0	370
2020ko martxoarekin alderatuta	+% 5,9	374
2021 Iraila		396

### Erregimen autonomoko afiliatuak 2021 iraila ■

Denbora-alderaketa		Zifra absolutuak. Afiliazioak
2020ko irailarekin alderatuta	+% 4,6	1.378
2020ko martxoarekin alderatuta	+% 5,3	1.369
2021 Iraila		1.441

\* Oharra: ez dira kontuan hartu zero enpleguko kotizazio-kontuak.



JOERA nagusiak

**2. joera:** Aldi horretan<sup>1</sup>, aldi baterako lan-erregulazioen eraginpean zeuden langile guztiek egoera hori utzi dute, eta Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopuruak goranzko bilakaera areagotu du.

**Enplegu-erregulazioko espedienteak eragindako kultura-jardueretan besteren kontura diharduten langileak (%) - Bilakaera**

Denbora-alderaketa	2020 apirila-2020 iraila arteko tasa	Kopuru absolutuak
<b>2020 Apirila (ERTEak hasi zirenean)</b>	--	<b>333</b>
<b>2020 Iraila</b>	<b>-% 54,4</b>	<b>152</b>
<b>2021 Iraila</b>	--	<b>0</b>

**Gizarte-segurantzako afiliatuak kultura-jardueretan (Erregimen orokorra eta autonomoen erregimena) – Bilakaera**

Denbora-alderaketa	Urte arteko ald.	Kopuru absolutuak
<b>2020ko irailarekin alderatuta</b>	<b>+% 5,1</b>	<b>4.441</b>
<b>2020ko martxoarekin alderatuta</b>	<b>+% 7,0</b>	<b>4.363</b>
<b>2021 Iraila</b>	<b>4.669</b>	<b>--</b>

1. Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueren buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazioko eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jardueren batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jardueren batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.



JOERA nagusiak

### 3. joera:

Kultura-enplegua nabarmentzen da aldi baterako enplegua delako, eta horrek eragina du lan-merkatuaren dinamismoan. Datuek erakusten dutenez, 2021eko hirugarren hiruhilekoan sendotu egin da aurreko hilabeteetako susperraldia, baina igoera arina izan da aurreko urteko aldi beraren aldean. Hala eta guztiz ere, pandemia aurreko zifrekiko aldea gero eta txikiagoa da, eta balioak garai hartan lortutakoetara hurbiltzen ari dira pixkanaka.

#### Kontratuen behin-behinekotasuna Kultur sektorean\*

Kontratu mota	3hh 2020	3hh 2021
<b>Mugagabea</b>	<b>% 1,2</b>	<b>% 1,3</b>
<i>z.a.</i>	22	31
<b>Aldi baterakoa</b>	<b>% 98,8</b>	<b>% 98,7</b>
<i>z.a.</i>	1.740	2.301

#### Erregistratutako kontratu berrien urtetik urterako bilakaera\*

Denbora-alderaketa	Urte arteko ald.	Zifra absolutua
<b>2020ko irailarekin alderatuta</b>	<b>-% 3,4</b>	769
<b>2020ko irailarekin alderatuta</b>	<b>+% 0,3</b>	741
<b>2021 Iraila</b>	743	--

\*Oharra: Informazio hau ondorengo EJSN kodeetan jasotako jardueri buruzkoa da soilik: 18 Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa; 59 zinema-, bideo- eta telebista-programetako, soinu-grabazioko eta musika-edizioko jarduerak; 90 sormen-, arte- eta ikuskizun-jarduerak; eta 91 Liburutegien, artxiboen, museoen eta beste kultura-jarduera batzuk. Horren arrazoia da iturriak ez duela kulturako beste jarduera batzuk sartzeko adinako desagregazio-mailarik duen informaziorik eskaintzen.

JOERAK



JOERA nagusiak

**4. joera:** Aurreko hiruhilekoan baino apalago bada ere, 2021eko hirugarren hiruhilekoan gora egin du kulturaren sektoreko enpresen fakturazioak, eta berretsi egin da aurreko hilabeteetan sektorearen susperraldi ekonomikorako izandako joera, nahiz eta covid aurreko garaian lortutako zifretatik oso urrun dagoen oraindik ere.

Kultura-ekintzaren eremuan sailkatutako enpresek sortutako BEZaren aitortpenaren hiruhileko arteko bilakaera

1hh 2020	2hh 2020	3hh 2020	4hh 2020	1hh 2021	2hh 2021	3hh 2021
<b>-% 35,6</b>	<b>-% 61,0</b>	<b>% 19,5</b>	<b>% 83,8</b>	<b>-% 57,4</b>	<b>% 91,1</b>	<b>% 29,9</b>
1.422.247€	555.065€	663.393€	1.219.295€	519.472€	992.633€	1.289.505€

Kultura-ekintzaren arloan sailkatutako enpresek sortutako BEZaren aitortpenaren urte arteko bilakaera

Hiruhilekoak	Urte arteko ald.eraketa 2021eko 3. hiruhilekoarekiko	Kopuru absolutuak
3. hiruhil. 2019	<b>-% 58,2</b>	3.087.076€
3. hiruhil. 2020	<b>+% 94,4</b>	663.393€
3. hiruhil. 2021	--	1.289.505€



## JOEREN jarraipena

- » Nafarroako kultura-sektorearen jarduera pixkanaka suspertzeko joerari eusten zaio, nahiz eta oraindik ez diren covid aurreko garaiko zifretara iritsi eta oraindik pandemia nola garatzen den eta horrek sektorearen jardueran eta ekonomian izan ditzakeen ondorioak ikusi beharko diren.
- » Behaketa dinamikoak aukera emango du hautemandako joerak eta Nafarroako kultura-enpresen, enpleguaren eta jardueraren gaineko ondorioen bilakaera aztertzeko, eta horren arabera jarduteko.
- » Laster, 2021eko hirugarren hiruhilekora arteko bilakaeraren adierazleen panela sartuko da KNBren webgunean, eta informazio hori laster eguneratuko da 2021eko laugarren hiruhilekoari buruzko datuak bilduko dituen azken txostenarekin, behaketa-aldia itxiz.